

"Euskararen ilunpeko lozorroan Nafarroak izan zuen suspertzaile aipagarrienetakoa galdu du gure herriak", idatzi zuen Jose Maria Satrustegi Euskaltzaindiko idazkariak Euskera aldizkarian 1995ean, Pedro Diez de Ulzurrun Etxarteren heriotzaren berri emateko eginiko artikuluaren lehenbiziko lerroan. Omenaldi handien lagun izan gabe ere, begibistakoa da sona handirik gabe joan zela sendagilea, egunkarietako artikulu zenbait kenduta, lanean lagun izan zuen arruazuarrarenaren gisako oroitzapenak gora-behera, euskaltzale gehienentzat —baita Nafarroakoentzat ere— ezezaguna zelako —delako— lurralde foralean iruindarrak eginiko lana.

Lan handia, oinarrizkoa eta garrantzitsua, nolahi ere, euskararen gaur egungo lorpen zenbaiten zutabeak paratu zituena, eta garai oso gogorrari —hizkuntzaren prestigios erabat hondoratuta, hiztunen galera gero eta abia biziagokoa, Euskaltzaleendako giro itogarri eta, zenbaitetan, arriskutsua— aurre egin

behar izan ziona. Baina, era berean, lan ixila, zalapartarik gabea, bolada aldakorrek gorabehera eta pertsonaiak joanda ere iraun egiten duten horietakoa.

Pedro Diez de Ulzurrun (1924-1994).



2

Horregatik, hain zuzen ere, Pedro Diez de Ulzurrunen pertsonalitatea eta gogoa bere lanaren arrastoari jarraituta irakur daiteke, artikuluetan egin zituen adierazpenak edo bere bizitzari buruzko xehetasunak aletuta baino askoz hobeto. Principe de Viana Erakundeko Euskararen Aldeko Sailaren barruan eginiko lana da bere euskaltzaletasunaren testamendua, gerra ondoko mugimendu horren historiaren hastapenak bideratu, batu eta elikatu zituelako.

BIZITZAKO ZERTZELADAK

1924ko abenduaren 27an sortu zen Iruñeko San Anton kaleko 43-45 zenbakian, aita Pedro eta ama Frantziska zituela. Hiru anaien artean bigarrena, hiriburuko Maristen ikastetxean burutu zituen lehen eta bigarren mailako ikasketak, eta bukatzean Zaragozara joan zen, medikuntza ikastaroak egitera. Aita ere medikua zuen Pedrok, eta endokrinologia eta elikaduran espezializatu zen. Karrera amaitu

Aita Pedro eta ama Frantziskarekin Donostian. 1925eko udan.





Urbasatik behera gerra bukatu zen urtean berean.

bezain laister Basurtuko eritetxean eman zituen bi urte, barne-mediku lanetan. Lanbideak eskatzen zizkion orduak ez zituen inoiz negoziatu, eta, ezagutu zutenek diotenez, lanpeturik bizi izan zen beti, Iruñerrikoak ez ezik, Nafarroako mendialdeko bezero asko hurbiltzen baitziren bere kontsultara. Hantxe ezagutu zuen beranduago Euskalgintzan lankide hurbil-hurbila izango zuen Jose Maria Satrustegi, eta hantxe, eriekin izan zuen tratu atsegin eta adiskidetasunezkoa tarteko, egin zituen lagun ugari.

3



Oberena Elkarteko fundatzaileetarikoa bat izan zen.



Oberena Dantza Taldean (eskuinetik hirugarrena), 1940garren urtean.



Osasuna futbol taldeko San Juan zelai zaharrean adiskideekin.

Euskaltzaletasuna ez zen inoiz ahaleginik eskatu zion militantzia, txikitandik usaindu zuelako etxean euskal giroa. Aitak bazekien euskara apurra, eta San Anton kalean izan zuten neskameak, Baztango Zigakoa berak, apenas ezagutzen zuen erdara. Severiano osaba EAJko gaztediaren zuzendaria izan zen Iruñean, eta euskalduna ez ezik, dantzaria, txistularia eta entzierroetako korrikalari trebea ere bazen gizona. Angel, beste osaba —iloba Kepatxo deitzen ziona—, gazterik joan zen Bilbora eta, abertzale porrokatua, EAJan aritu zen hantxe. Arturo Kanpionen *Blancos y negros* liburuaren irakurketak eta Acción Católica taldean zenbait abertzalerekin estutu zuen harremanak —handik sortuko zen gero Oberena taldea, dantza, txistulari eta mendizale taldeak osatu eta herriz herri erakusten aritu zena— piztu zuten Pedorengan bere herri eta bere hizkuntzarekiko maitasuna.

Baina bere ahaleginari zor zion zeukan euskara. 13 urterekin hasi zen ikasten, *Intxaurrondo* izeneko gramatikarekin, Iruñeko Apaizgaitegian apezei irakasteko erabiltzen zuten harekin. Ondoren, Zaragozan — ikasketak egin zituen garaian— eta Basurtun jarraitu zuen hizkuntzaren ezagutzak sakontzen. Iruñean berriro, Nafarroako Diputazioak antolatu zituen euskarazko klaseetan izena eman zuen 1952an. 1936tik debekatuta zeuden klase hauek, eta sendagile gaztea Francisco Tirapu irakaslearekin egin zuen lehen kurtsoan hasi zen euskaraz mintzatzen.



Soldadugoan, miliziatan Zamora aldean.

5

Zaragozan
medikuntza
ikasketetan
1942garren urtea.



6

Klaseak ez ziren hutsetik sortu, urte haietan berpizten hasi baitzen 36ko gerrak adarrak inausi bai baina errotik moztea lortu ez zuen Euskaltzaletasunaren giro herabe bat. Jose Javier Urmeneta —Espainiako Armadaren kapitaina, eta garai hartan Iruñeko Aurrezki Kutxako zuzendaria—, Luis Arellano, Arantzadi eta beste batzuek idazkia igorri zioten orduan Diputazioko lehendakaria zen Carlos Gortari Erreari, euskararen aldeko politika duin bat eskatuz, eta agintariak erabakia hartu zuen Principe de Viana

Erakundearen barruan —kultur gaiak Nafarroan beti kudeatu dituen— Euskararen Aldeko Saila osatzeko. Ez zen erabaki axalekoa izan, eskaeraren atzetik asmo ondo burutuak eta ideia sakon-sakonak zeudelako. Nafarroan euskarari prestigios ematea zen hondarreko helburua, psikologia aldetik lan egitea, euskara jota zegoelako bazter orotan. Urmenetak, Jose Agerre Euskaltzaleak, Jose Maria Satrustegi Luzaideko apaizak, Diez de Ulzurrunek berak —sailaren sorrera hura hausnartu eta erdietsi



Zaragozan ikasle.

zutenek- bazekiten, ikusia zutelako — maiz, zaharrak lotsatzen zirela beren mintzairarekin, haurrek ez zutela ikasten; madarikazioa zela ia, eta lana azkar eta ondo egiten ez bazen, euskararenak egina zuela. Garai hartako adierazpenak irakurrita, denak bat datoz puntu honetan: "lanean hasten ez bagara, 30 urte barru euskara hilda egongo da Nafarroan". Siniste haren manifestutzat hartu daiteke Nafarroako Diputazioak, sailaren sorrera zela-eta, 1957ko azaroaren 20ko buletin ofizialean erdaraz eta euskaraz argitaratu zuen erabakia:

"Nafarroako Diputacioa naigabe samiñarekin ikusten ari da izkuntze gucietan ederren eta arrigarrien den Euzkera, jakintsu aundiak diotenez, Nafarroako euskal erriak beren euskal izkuntza beren etxetatik kampa botatzen ari dirala. Gaitze negargarri au gertatu ez dedin, dei egiten die euskeraz itz egiten dakitenei, jarraitzeko euskeraz itzegiten, beren umetxoei erakusten eta egiñalak egin ditzaten euskera zabaltzen.

Euskeraren ikasbide bizkortze eta iraupenerako lan egingo duen sail berri bat (una Sección nueva) Institución Principe de Viana'n badu Diputacioak.

Sail ontan lan egiten dutenak pozik lagun egingo die euskaldun guziei euskeraren sendotzen eta iraupenerako lanetan.

Denbora gutxian, Nafarroako euskal erri guziak ikustatuko ditugu, baita ere euskeraz itz egiten dakiten ume guziei sari edo premio ederra eman ere beti euskera maite izan dezaten eta sekulan izkuntza eder ori galdu ez dezaten.

Euskeraren alde Diputacioak jarri duen sail berri ontan lan egiten dutenak, abenduaren lendabiziko amabost egunetako jai egunetan Irañetatik asi eta Urdiain bitarteko erri guzitako umetxoak esamiñatuko dituzte, eta euskeraz itz egiten duten umetxo guziei sari ederra eman ere".

1946an festa batean zenbait adiskiderek.



8

Gaur egun ere, Euskaltzale askok sinatuko luketen moduko adierazpena.

Berau gorpuzteko pertsonak behar zituen sailak, ordu franko emateko eta ordain urriak jasotzeko prest zeuden langileak, eta Diputazioak jarri zituen ezinbesteko baldintzak burua izango zenak bete beharrekoak: gaztea behar zuen, euskalduna, 36ko gerran ez alde batean ez bestean ibilia eta laikoa. Jendeak berehala Pedrorengan pentsatu zuen.



Iruñean 1947garren urtean.



Saioa mendi-lepoan Rosario eta Javier, koinatuarekin.

HERRIZ HERRI HAURREI EUSKARAZKO AZTERKETAK

Lehen lana denen gogoan zen. Euskararen atzerakadari galga paratu behar zitzaion, eta horretarako, beraien iritziz, higadura-alderdietan — hau da, euskara bizirik egon arren atzerakada pairatzen hasiak ziren alderdietan— lan egin beharra zegoen berandu baino lehen. Zonaldeak hauek ziren: Sakana, Imotz, Atetz, Odieta, Anue, Esteribar, Erroibar, Artzibar, Aezkoa eta Zaraitzu. "Alderdi hauek duten ezaugarria hauxe da: — idatzi zuen Diez de Ulzurrunek Diputazioari aurkeztu zion *Euskararen defentsarako egitasmoa Nafarroan* izeneko plangintzan— helduek ezagutu egiten dutela euskara, baina haurrek ez. Ondorioz, etxe bakoitza euskal eskola potentziala da". Lana sailkatu zen, zehaztu ziren baldintzak - bi milioi pezeta bost urtetan gastatzekoak-, eta ohartarazi zitzaion agintariei: "20 urte gehiago uzten badira alderdi hauek inolako laguntzarik gabe, euskarak atzera egingo du Nafarroako zona kantabrikoraino —Bidasoa eta Baztan—".



Basurtun espezializatea egiten zebilenekoa.

1953an ezkonberritan Madrilen. Emaztea, Mariola Segala.





Herriz herri azterketak egiten.
Uztegitik Gaintzara.

Lehen aurrekontua 230.000 pezetakoa izan zen, eta taldea, Pedro Diez de Ulzurrunen gidaritzapean, ez zen berandutu bere lanean. Urriaren hondarrean hasi ziren lehen hizketaldiak Sakanako herrietako apaizekin, eta haiei eskatu zitzaizkien euskarari buruzko datuak, eskolatzeko adinean zeuden haurrei buruzkoak, azterketak egiteko orduak eta tokiak... Deialdiaren arrakasta ziurtatzeko azaroaren 20an argitaratu zen Nafarroako Buletinean ohar bat, euskaraz eta erdaraz, eta abenduaren 15ean egin ziren lehen frogak Irañeta eta Urdiain bitarteko herri guztietan, Ergoienakoak barne.

Frogak ahozkoak ziren, eta zenbait sailkapen egin ziren, ezagutzaren arabera. Sariak dirutan banatu ziren, eta horretarako Nafarroako Aurrezki Kutxako kartilla bat eman zitzaion froga gainditzeko zuen haur bakoitzari. 1.150 haur zenbatu ziren zonaldean, eta, egin ziren azterketen arabera, horietako 845 gai ziren euskaraz ondo hitz egiteko.

Hauxe izan zen lehen urratsa, eta hurrengo urteetan bide berari jarraitu zitzaion, euskararen benetako hizkuntz-errola egin arte. Hurrengo urteetan Burunda, Larraun, Basaburua, Aezkoa, eta gainontzeko

Gaintzan herriko apezarekin.



herri eta ibar guztiak etorri ziren. Pedro Diez de Ulzurrun izan zen beti burua, eta bere lanaz hitz egin zuenean zenbait laguntzailereren izenak aipatu bazituen ere —Jose Maria Satrustegi, Angel Irigaray, Francisco Tirapu, Pedro Diez de Ulzurrun apaiza, Aita Felipe Murietakoa...— bera bakarrik aritu zen ia beti herriz herrikako lan honetan.

Ahalegina ez zen erraza izan, sendagileak ezinikusiak, gorrotoak, eta, baita euskaldunen artean ere, ezin ulertzeak ikusi eta pairatu behar izan zituelako Nafarroako mendialde oso- osoa korritu zuen garai hartan. Beruetera bidaiari goardia zibilen artean egin behar izan zuen herrirako sarrera, eta Luzaideko haurrei azterketak egin behar zizkieten egunean ere mendialdeko goardia ia guztiek okupatu zuten herria. Orduan Amadeo Marco diputatu zena hurbildu zen herrira, eta goardia guztiak herritik alde egiteko agindu zuen. "Ekitaldi hau Diputazioak agindu du, eta ni hemen nago Diputazioaren izenean. Hemen ez duzue zer eginik" esan zion burua zenari, eta ekitaldia normaltasunez egin ahal izan zen. Jose Maria Satrustegik orduan egin zen lana oso garrantzitsua izan zela uste du:

"Beldurra zegoen jende askorengan, eta etsipena ere, batez ere gerran ibiliak zirenen artean. Haien uste zuten gauza ona zela euskara bistatik galtzen bazuten. Beraz, psikologikoki lana zen haurrekin egiten genuena, beste ezer baino gehiago, eta hori izan zen gure asmo bakarra. Ez ginen euskara erakustera joan, euskaraz jakin eta mintzatzeagatik ez zutela ezeren lotsa izan beharrik esatera baizik, eta Diputazioak, agintariak, saritzen zutela euskaraz ikasia. Ikuspegia hankaz gora botatzea zen, eta beste ereintza bat egitea".

11




Herriko eskoletan haur euskaldunei azterketak egiten.



Pedro Diez de Ulzurrunek berak azaldu zuen bere itxaropena *Egan* aldizkarian 1960an egin zioten elkarrizketan, etorkizunaz zein uste zuen galdetu ziotenean:

"Euskerak, makal egon arren, ez zuen nere ustez eriozko gaitzik naita-ez ilko duenik. Itxaropenez beterik ari da beraz gure Sail au egunen batean euskera ikusiko dugulakoan gaztelania eta frantsesarekin adiskidetasun ederrean, baita eskolan ere. Ezarian bezala baztertu bear dugu gaur eskoletan sumatzen den euskera ezin-eraman ori. Lau Diputazioen eginkizuna da ori, batez ere".

Azterketa gaingiditzen zuten haurrei ematen zitzaizen diploma.



Iruindarrarena gidaritza aparta izan zela ezin uka, urte haietako lanari esker euskara nafar guztien ondare gisa aurkezten hasi baitzen han eta hemen. Orduko bere lankideek gogoratzen duten bezala, sendagile lanak egin ondoren bere ordu gehienak euskarari eman zizkion gizonak. Gaitasun handia zuen lanerako, bazekien gaiak mamitzen eta kezkek bideratzen, korrespondentzia handia zuen, eta hotsik egin gabe lan egiten dakiten horietakoa zen. Xaloa eta atsegina, baina ixila, bere lanari esker herri guztietan bazituen ezagunak. Ondo moldatzen zen euskaraz, hizketan eta idatzian, eta sailaren barruan eman zituen 16 urteetan ez zuen sos pizarrik inoiz kobratu.

Haurren arteko sariketak bakartasun gorrian eta diru gehiegirik gabe zuzendu zituen. Ibilbide haren bihurtune guztien atzetik ageri ziren maldak —trabak— igotzeko laguntza ere izan zuen. Lehendabizi, eta bereziki, 1964tik diputatua zen Jose Javier Urmenetarena, baina baita aginte bera zuen Amadeo Marcoren ere. Nafarroan itzal handiko pertsonak biak. Horrela, proiektuak portu onera eramateko pertsona Pedro izan bazen, Urmenetaren lana aipatu behar da sailaren estrategia gisa. Marcoren jarrerak ere asko lagundu zien. Berak

beti esaten zuen: "politika, politika!, nere gurasoak euskaldunak ziren eta ez zuten politikarik". Biak gauza izan ziren Diputazioaren barruan euskararen aldeko politika honek sortzen zituen mesfidantzak gainditzeko.

Ez zen hurrei azterketak hasierako urte haietan sailak burutu zuen lan bakarra. Iruñean zeuden euskarazko klaseak -Francisco Tirapuk berak emanak- diruz lagundu zituen, eta Diez de Ulzurrunek Lekarozko Ikastetxeko zuzendaria zen Domingo Beizamari idatzi zion 1958an bertan urte hartako gai zerrendan ere sar zitzan euskarazko klaseak. Halaber, euskarazko argitalpenei dirulaguntzak ematea izan zen sendagilearen beste kezka nagusienetakoa. Satrustegik argitaratzen zuen *Luzaide* orriak — emigranteendako eliz orria—, Aita Kaputxinoek kaleratzen zuten *Umeen Deya* haur argitalpenak, *Zeruko Argia*-k, elizetan maizen erabiltzen ziren bederatziruinen bilduma eta Angel Irigarayren *Ogeigarren mendeko Nafarroako euskal idazlariak* lanak jaso zuten erakundearen dirulaguntza, eta 1959an Euskal Herrian Bonaparte Printzeari egin zitzaizkion omenaldietan ere parte hartu zuen sailak, Aita Jorge Riezukoak eman zuen hitzaldiarekin.

Lehen hiru urteak horrela joan ziren. Oihartzun handia zuen sailak egiten zuen lanak, eta, ttarraka-ttarraka, sendagilearen eta bere lankideen buruetan zeuden ideia asko gorpuztu ziren azkenean, 1960an egitasmoak mami handikoak ziren, lan ondo eginak konfidantza eman zien seinale. Azterketak egin ziren Baztan eta Leitzaldean, eta sariak emateko egunak Euskal Besta arrakastatsuak ziren; *Goldarazko astoaren bertsoak* editatu ziren, bertso-paper gisa, eta euskarazko klase berriak diruz lagundu ziren Iruñean. Euskal liburuak erosten hasi ziren hurrei sari gisa banatzeko eta euskal antzerki-taldeak sortzeko asmotan zeudela azaldu zion Pedro Diez de Ulzurrunek Diputazioari, urtearen balantzea aurkezterakoan.

13

Hurrei sariak emateko egiten ziren Euskal Bestak iragartzeko kartelak.



NAFARROAKO BERTSOLARIEN I.TXAPELKETA

Hala ere, dudarik gabe, Nafarroako Bertsolarien I.Txapelketa izan zen sailaren urte hartako ekitaldirik sonatuena, ia ezezaguna eta plazarik gabea zen nafar bertsolaritzarentzat izugarritzko garrantzia izango zuena. Gerra aurretik antolatutako ekitaldi batzuetan egin zen bezala, bertsolariak bilatzea izan zen estraineko lana, eta Diez de Ulzurrunek hartu zuen horren ardura. Herriz herri aritu zen galdezka sendagilea, Mariano Izeta elizondoarrarekin batera. Lan handia egin zuten. Aurreko urteetan, haurrei

sariak emateko egiten ziren Euskal Bestetara bertsolariak eraman zituen sailak baina, 1960. urtearen bukaeran, Euskaltzaindiak antolatzen zuen gisa bereko txapelketa sortu zuen. Hasiera bitxia izan zen. Ekainaren 26an Larraungo Lekunberrin egitekoa zen lehen kanporaketa, eta, bezperen ondotik, hitzaldi bat entzun eta gero, Leitzako Abesbatzaren aktuazioa adituta, gaijartzailea igo zen oholtza gainera eta galdetu zuen: "Beno, bertsolaririk ba al da plazan?". Bata bestearen ondotik hamaika igo ziren: Angel Aldaz ihabendarra, Martin Oreja errazkindarra, Manuel Iriarte Arribekoa, Clemente Ezkurdia Gorritikoa, Pedro Narbarte Aranokoa,



Izen berbera zuen Pedro Diez de Urruzun Irañetako apezarekin.

Bautista Perurena eta Andres Narbarte, Xalto goizuetarrak eta Moises Jaso eta Pedro Arrastio gaintzarrak.

Pedro Diez de Ulzurrunek geroago gogoratuko zuen bezala, mesfindantzak gainditu behar izan zituzten franko oraingoan ere, baina egitarau guztien azpitik jartzen zuten lemak —"Diputazioaren laguntzarekin"—ate gehienak zabaldu zizkien. Baita, kontzilio garai haietan, sotadun fraileak ondoan edukitzeak ere: epaimahaiko izan zuten askotan Aita Felipe Murieta, Jose Maria Satrustegi, Aita Zavala eta Pedro Diez de Ulzurrun apezak. Lekunberriko estraineko bertso saio hartan Andres Narbarte izen handiko pertsonaiak agurtu zituen txanda egokitu zitzaionean:

Lendabizikoz artu ditzagun
gradorik aundienekoak
Alkate Ayuntamenduarekin
Obispo, Apaiz Jaun prestoak
oain biotzetik maite ditugun
Nagusi Diputadoak.

Ekitaldiak zer nolako giroan egiten ziren ilustratzeko Mariano Izetak kontatu izan du bertso saio aunitzetan antolatzaileen ondoan esertzen zela bertako goardia zibilen burua. Bertso saio osoa arretaz eta begirunez entzun ondoren —tutik ulertu gabe, jakina—,

amaitutakoan galdetzen zien ea Espainiaren edo erlijioaren aurkako adierazpenik izan ote zen. Derrigorrezko ezetza entzun ondoren, eskerrak eman eta lasai asko joaten zen berriro koartelera, ekitaldia oso ederra izan zela esan eta gero.

1963an finala Iruñeko Gayarre Antzokian ospatu zen lehendabiziko aldiz eta jendez mukuru bete zen eraikin zaharra Narbarteren txapela agurtzeko. 1966an antolatu zuen sailak azken aldiz Bertsolarien Txapelketa, Pedro Diez de Ulzurrun buru belarri sartu zelako euskara sustatzeko bide honetan eman zuen hurrengo egitasmoarekin, euskarazko argitalpenekin, alegia.

15



Euskal Besta batean. Ondoan Satrustegi.

SAILAREN BIDEZ BULTZATUTAKO BESTE EKINTZAK

Haurrei azterketak eta bertsolariak ez ezik, atal berriei atek irekitzen lan handia egin zuen sailak. Esaterako, Goizuetako apezak idatzi zuen *Aberatsak Olaxe egiten* izeneko antzezlan lagundu zuen, 1962ko abuztuaren 19an Goizuetan bertan antolatu zen Euskararen Egunean estreinatu zena. Urte hartan 250.000 pezetakoa izan zen sailaren aurrekontua, Principe de Viana Erakundeak zuen altuenetakoa, Monumentuen Zaharberritze, Nafarroako Museoa eta Musika Atalaren atzetik.

1960garren urtean Lekunberrin. Kantatu aurreko bazkaria. Besteak beste, Alfontso Irigoien, Angel Aldaz Ihabengo bertsolaria, Andres NARBARTe eta Bautista Perurena, *Karretto*, baita Aita Felipe Murietakoa ere. Erdian Bordari zena, euskal idazle ezaguna.



1963an garrantzi handikoa izango zen euskararen katedra osatu zen Nafarroako Unibertsitatean, Koldo Mitxelena eta Jose Migel Barandiaranekin, eta Euskararen Aldeko Sailak partehartze zuzena izan ez bazuen ere, garaiko prentsan Pedro Diez de Ulzurrunek egindako lanaren ondorio gisa aurkeztu zen Nafarroako Diputazioak diruz lagundu zuen ikasketa zentro hau. Klaseak 1964ko otsailaren 21ean hasi ziren. Koldo Mitxelenak euskal hizkuntzalaritza erakutsi zuen, Jose Migel Barandiaranek etnologia landu zuen eta Ana Maria Etxaidek euskararen hastapenatarako ikasketen ardura hartu zuen.

Baina ez zen sendagilearen lana mugatu kazetetan ohiartzuna zuten ekitaldiak antolatu, bideratu eta bultzatzera. Txinaurriek bezala, harri koxkorak paratu zituen etengabe pasiobide izan zuen euskararen alde urte hauetan guztietan. Horrela, eta Bertsolarien Txapelketaren arrakastaz baliaturik, euskal liburuak zabaltzeari ekin zion Nafarroako bertsolarien artean ez ezik, irakurtzeko gaitasun zutenen artean ere. *Auspoa* argitaletxeko Aita Zavalarekin izaniko korrespondentzian antzeman daitekeenez, sailaren diru franko baliatu zuen bertso-saioetan bertan koblakariei bertsolari zaharrei buruzko

liburuak oparitzeko, eta laguntza horri esker, Tolosako argitaletxeak Mendiburu, Bordel, Pablo Yanci, Larramendi eta beste autore batzuen lanak kaleratu zituen. Halaber, urte hartan bertan hasi zen Iruñean ikastolen aldeko mugimendua, lehendabiziko saioak bederen, eta Diez de Ulzurrunek bere eragina erabili zuen Nuestra Señora de Iranzu ikastetxeak eta Xavier Academia-k — ikastola eta helduendako euskarazko klaseak emateko zentroak, hurrenez hurren— topatu zituzten eragozpenak gaindi zitezten.

EUSKARA SUSTATZEKO NEURRIAK

Euskararen etorkizunari buruzko kezka euskaltzale bakan batzuen gogotik jalgia bazen ere, eztabaida kalean zen dagoeneko Euskal Herri osoan, besteak beste Nafarroan eginiko lan horri esker. 1964ko azaroan, *Diario Vasco* egunkariak inkesta bat egin zuen kultura gizonen artean hizkuntza zaharraren geroari buruz, eta Ramon Menendez Pidalek ez ezik, Koldo Mitxelena, Angel Irigaray, Julio Caro Barojak, Jose Maria de Areilzak, Aita Villasantek eta beste zenbaitek bere iritziak plazaratu zituzten Gipuzkoako kazetan. Baita Pedro Diez de Ulzurrunek ere. Garaian

oso entzunak ziren argudio batzuekin batera —euskarak behar zituen neurriak hartzen ez baziren ehun urtetan desagertu egingo zela, baina egoera ez zela erabat etsitzekoa eta neurriak jarri ezker bazegoela itxaropenik—, erabat iraultzailatzat jo daitekeen erantzuna eman zion neurri hauek zeintzu izan zitezkeen galderari:

"Euskara ofizializatzea, hau da Espainian eta Frantzian gaztelaniak eta frantsesak duten mail bera ematea. Beraz, Euskal Herrian elebitasuna ezartzea, galdu den alderdietan astiro eta presiorik gabe, euskal zonaldeetan derrigor. Honek esan nahi du ikastetxeetan gaztelaniaren tratamendu bera izango duela, egunkariak ere elebidunak izan beharko direla eta berdin iratiak, ikastetxe pribatuak, seminarietako irakaskuntza, elizetako katekesiak, zaharretxeak, zinemak, telebistak (...). Belgikan egiten dena, gutxi gora-behera".

17

PRINCIPE DE VIANA

ALDIZKARIA

Hurrengo urteetan indarra hartu zuen Nafarroan ikastolen aldeko mugimenduak eta Diez de Ulzurrunek izan zituen kolaboratzaile askok horretara bideratu zituzten ahaleginak. Ez zen horregatik makaldu saila, beste zereginetan murgildu baizik. Alegia, beste urrats bat eman zuen. Oharturik euskarak etxe guztietan egin behar zuela tokia, aspaldian galdutako izen ona eman behar zitzaiola, euskaraz mintzatzen zen etxe guztietara aldizkaria bidaltzea erabaki zuen Diez de Ulzurrunek, Urmenetak eta Satrustegik gidatzen zuten taldeak. "Ez da aski euskara zaindu behar dela errepikatzea, irakurtzeko modurik ez badute" esan zuten bilera batean. Horrela sortu zen hileroko aldizkariaren proiektua, lehen zenbakia *Orreaga* izenarekin egin bazen ere orduetik aurrera *Principe de Viana euskal orria* izena eramango zuena.

Lehen zenbakia 1966ko otsailean kaleratu zen eta 7.000 ale bidali ziren beste horrenbeste etxetara, dohainik. Lehendabiziko alean Nafarroako, Espainiako eta mundu zabaleko berriak, kirolari buruzko aipamenak, nekazaritza eta abeltzaintzaren inguruko kontuak, herriz herriko notiziak eta Axularri buruzko artikulatuak

bildu zituen, besteak beste. Diez de Ulzurrun izan zen zuzendaria eta arduradun erabatekoa eta berehala agerkaria ezinbesteko erreferentzia izan zen Euskaltzaleendako. Lehen ale honek erdarazko testuak ekarri bazituen ere, hortik aurrera artikulua ia guztiak euskara hutsean argitaratu ziren.

Aldizkarian luma gazte aunitz trebatu ziren, eta zaharrek izan zuten beren kezkek, gogoetak eta ikerketak plazaratzeko leiho irekia. Angel Irigaray —A. Apat Etxebarne izengoitiz sinatzen zuena—, Jose Maria Satrustegi, A. Astiz Arregi, Dr. Hernandorena, Mariano Izeta, Jose Estornes Lasa... izan zituen kolaboratzaile finkoak, eta Patxi

Migel Arozamena Lesakarrari txapela ematen.



Zabaleta —1967ko martxoan "Gaurko sozialismoa aurrerapen bat da" artikuluarekin, Pako Zabaletak sinatuta—, Joxe Angel Irigaray—Txekoslovakiaiko egoerari buruz 1968ko abenduan eginiko artikuluarekin—, Jean Haritscheihar, Juan San Martin eta beste asko azaldu ziren maiz argitalpen honetan.

Hilabeteroko orriak ez zituen polemikak uxatu, haien lekuko Hernandorenak eta San Martinek euskararen geroari buruz izan zutena. Bertsoak erruz azaldu ziren, ia zenbaki guztietan, eta baita kirolaz, nekazaritzaz eta beste gaiez artikuluak

ere. Pedro Diez de Ulzurrunek biltzen zituen artikuluak, egiten zituen zuzenketak, aukeratzen zituen argazkiak eta moldiztegiara eramaten zuen gero material guztia. Artikuluak ere idatzi zituen asko, zenbaki orotan ateratzen zuen Euskal Herriko leihoa saila barne, eta *Ikusle* izengoitia baliatu zuen horretarako. Aldizkariarekin batera ia —1966ko maiatzean—, *Diario de Navarra* egunkariak euskarazko orri bat kaleratzeari ekin zion, eta hantxe aritu zen Diez de Ulzurrun ere, Angel Irigarayrekin batera.



Enrike Zubiri,
Manezaundi luzaidar
idazle ospetsuaren
omenaldian. Luzaide,
1968.

IKASTOLEN ALDE DIPUTAZIO BARRUTIK

1967an, Miguel Javier Urmeneta diputatua eta Jose Esteban Uranga Principe de Viana Erakundeko zuzendariarekin batera, Pedro Diez de Ulzurrunek eskutitz bat igorri zuen Nafarroako Diputaziora, Unibertsitateko 500 ikaslek sinatuta, non eskatzen baitzuen euskararen irakaskuntza eta onarpen ofiziala ikastetxe guztietan. Diputazioak bere erabakiaren berri eman zuen urtarrilaren 25ean, erabaki garrantzitsu eta aitzindaria. Onartutako ebazpen horretan, Nafarroako Lehen Hezkuntza zentroetan eta bereziki eremu euskaldun eta erdi-euskaldunen ikastetxeetan, egunero ordu erdiko euskarazko klaseak ematea onetsi zen, hori bai, klase orduetatik kanpo eta soilik nahi zuten haurrei. Hasteko, Ultzama, Elizondo, Doneztebe, Leitza, Lekunberri, Irurtzun, Etxarri-Aranatz, Altsasu, Auritz, Erroibar, Aezkoa eta Otsagabiako eskoletan hasiko zen. Halaber, bide eman zitzaion Principe de Viana Erakundeari diruz laguntzeko berez sortuak ziren euskarazko ikastetxeak, eta Diputazioak Nafarroako alderdi euskaldunean egingo zituen izendatze guztietan euskara jakitea kontuan hartu eta mesedetarako izango zela ere onartu zen. Eginkizun berri hauek betetzeko

Pedro Diez de Ulzurrun lagunduko zuten bi bozeramaile izendatu zuen Diputazioak: Jose Maria Satrustegi eta Jose Manuel Lasarte apaizak. Ikastolak legeztatu eta bultzada ematea zen, finean, erabakiak egiten zuena.

Iruñeko lehen zentroak martxan zeuden, eta Principe de Vianak ematen zuen babesari esker, gero eta gehiago ziren euskarazko irakaskuntza eskatzera ausartzen ziren gurasoak. Taldeak sortu behar ziren, jendea animatu, Diputazioan bertan sortzen ziren mesfidantzei aurre egin... Lan gehiegizkoa pertsona bakar batentzat, eta zuzendariak dimisioa eskatu zuen. Ezetza ez zitzaion etorri agintariengandik, Euskaltzaleengandik

21

1976an, Iruñeko Sanferminetan.



baizik. Garrantzitsuegia zen egiten ari zen lana, eta, Urmenetak proposatuta, Jorge Cortes Izal otsagierra sartu zen Principe de Vianan ikastolek sortzen zuten lan hori bideratzeko. Hortik aurrera, bi atai izan zituen sailak: aldizkaria, Diez de Ulzurrunen eskuetan jarraitu zuena, eta ikastolena, Cortesek bideratuta. Sartu eta berehala, Uranga jaunak proposatu zion azken honi Nafarroako herrietara joateko euskaldunei grabazioak egitera, Euskalkiei buruzko artxiboa osatzearren, baina Diez de Ulzurrunek animatu zuen ikastolekin egiten ari zen lanarekin jarraitzeko. Urte gutxi izan baziren ere, esan behar da lehen ikastolek sail honek eman zuen laguntzei esker egin zutela bidaia. Garai hartan, Gipuzkoako gobernadoreak eskutitza igorri zion Nafarroakoari ohartaraziz ikastolak hartzen ari ziren garrantziaz, eta

1989ko udaberrian San Anton karrikako etxean.



gomendatuz kontuan ibiltzeko. Garai hura bizi zutenek gogoratzen dutenez, ezinbestekoa izan zen Diez de Ulzurrunek aurretik eginiko lana, aterki paregabea eman zielako ondoan etorri zirenei, eta, batez ere, jendearengan euskararen aldeko iritzia sortu zuelako.

1970eko urrian, Diputazioak erabaki zuen ikastetxe elebidunak sortzea sartzen zela bere eskumenen artean eta Euskararen Aldeko Sailari egokitu zion asmoa aurrera eramateko ardura. 1971eko otsailean elkarte bat sortu zuen aurreko erabakia hobeto bideratzeko. Hurrengo hilabeteetan, baina, Diputazio berria osatu zen, eta agintetik desagertu zen ordura arte sailari laguntza handiena eman zion Javier Urmeneta. Diez de Ulzurrun eta beste kideak babesik gabe gelditu ziren eta joku makurrak ez ziren berandutu. Opus Deik eskua sartu zuen eta 1972ko otsailean Diputazioak erabaki zuen saila Hezkuntza barruan sartzea, eta bere esku uztea ikastolen alde egiten ari zen lan guztia. Proiektua itotzeko nahia ikusi zuten erabaki honen atzean sailekoek eta dimisioa aurkeztu zuten, baina, berriro ere, Diez de Ulzurruni erregutu zioten barruan jarraitzeko, ikastolen bidea atzeraezina izanik, *Principe de Viana* aldizkarian egiten ari zen lana oso garrantzitsua zelakoan.

Sendagileak berriro amore eman zuen, baina hizkuntza zaharrari begirunea ez izateaz landara, fruituak ematen hasia zen mugimenduari hegoak mozteko irrikitan zegoen talde berriaren presioa gero eta handiagoa egin zen, orain ja inolako trabarik gabe. 1973ko otsailean, Txomin Agirreren omenaldiari buruzko artikulua bat itzuli ez zen aitzakiaz —ez zen lehen aldia, urtero horrela egiten zelako— kritikak iritsi ziren. Itzulpenak egin behar izatea zentsuratzat hartu zuen Diez de Ulzurrunek eta Ignacio Irazoki eta Jesus Ezponda diputatuengana jo zuen esanez horrelako giroarekin dimisioa aurkeztuko zuela. Berehala onartu zioten. Sendagileak bi izen proposatu zizkien aldizkariarekin jarraitzeko: Satrustegi eta Irigaray, baina Diputazioak Martzelino Garde apaiza aukeratu zuen.

Aldizkaria desagertarazteko erabakia alde zuzenetik hartua zen ustea zuten denek. Zurrumurruek ziotenez, Ez Dok Amairu taldeak Larraitzen antolatutako gaupasa zaratatsuaren aipamena ez omen zen norbaiten gogokoa gertatu, eta haren erabilerari buruzko artikulua batzuk ere gehiegizko atrebentzia zela aipatu zuen norbaitek. Atzean, ordea, gorputz sendoegia egin zuen proiektu batekiko ezinikusia zegoen, eta haren sortzaile, bultzatzaile eta benetako arima izan zena baztertzea zen berak akatzeko biderik zuzenena. Aldizkariak zenbait urtez jarraitu bazuen ere, interesak eta zabalkundeak hondoa jo zuten, desagertu zen arte. Jose Maria Satrustegik idatzi duen bezala, Pedro Diez de Ulzurrun buru apal itzuli zen etxera, zaratarik gabe, "Euskaltzaleon amets ederretako umetxoa nola hiltzen zen ikusteko, ustezko abertzaleen eskutan itorrik".



Atarrabiako Nafarroa
Oinez-1991.

Joan baino lehen, hala ere, utzi zuen bere bizitzako ametsetakoa ofizialdua, gora-behera, istilu eta traba frankoren ondotik Nafarroako Diputazioak 1972ko abenduaren 15ean bere lehen euskararen legea argitaratu zuelako orri ofizialean. Funtsean, sailetik eskatutakoa bere egiten zuen Diputazioak, eta hitza hartzen zuen euskara irakaskuntzan sar zedin baliabideak jarri eta ahalegin pribatuak laguntzeko. Berriro ere, hitzak haizeak eramane zituen, eta ikastolek bere bidea egin behar izan zuten administraziotik inolako laguntzarik jaso gabe, baina esanahai berezia du erabakiak, Pedro Diez de Ulzurrunek Principe de Viana Erakundearen barruan egin zuena neurtzeko.



1992an bere lehendabiziko bilobarekin. Beñat.

Oraindik jarraitu zuen *Diario de Navarra*-ko euskarazko orrian, baina 1977an, Uranga zuzendariak euskarari buruz jaulkiriko zenbait editorial mezprezugarriak zirela-eta, berak, Irigarayk eta Satrustegik eskutitz bateratua idatzi zuten, iritziak zuzentzeko eskatuz. Ez zieten argitaratu eta hiruek batera utzi zuten ardura hori.

Ez zuen berriro lan publikorik onartu, eta, nahiz eta euskal munduak sorturiko beste mugimendu askoren alde beti azaldu zen —ikastolak, *Egunkaria*—, ez zen inoiz gehiago eskertzarreko lanetan murgildu. 1994ko urriaren 20-n hil zen Iruñean, hesteetako minbiziak jota. Hileta elizkizunek jende andana bildu zuten, garai askotako Euskaltzale aunitz tartean. Joxe Angel Irigarayk idatzi zuen *Egunkaria*-n:

"Ororen buru, alabainan, hiru belaunaldiren arteko zubi-denboran (gerla aintzinekoa, ondokoa eta hunen segidakoa) habe nagusienetarik izan zen. Orobat, Iruñea eta Nafarroako paisaian ondikotz bekan agertzen direnetarikoa: biziaren zentzu ludikoz jabetu, kultur mailaz jauntzi, dotoreziaz hornitu itzalik gabeko euskalduna".